

EUSKAL UNIBERTSITATEA

ILDO ESTRATEGIKOA: Euskal Unibertsitatea sortzeko zeregina bere gain hartu

ARLOA: EUren sorrera

URTEKO HELBURUAK:

Euskal Unibertsitatea sortzeko norabidean, GOI ikastegiaren barruan, hurrengo ikasturteetan titulazio berriak eskaintzeko urratsak ematen jarraitu dugu bai Eusko Jaurlaritzarekin zein UPV/EHU unibertsitate publikoarekin batera. Lehenarekin, lerroa babesteko funtsak lortzeko, eta, bigarrenarekin, atxikitze-hitzarmen berritu eta osatuago bat sinatzeko.

Aurtengo uztailean, ikastegi atxiki gisa, UPV/EHUrekin 2019an sinaturiko lehen atxikitze-hitzarmena berritzea zegokigun, baina tamalez atzeratu egin da eta horrek lerroan eragin du eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpen ekonomikoetan. Hala ere, GOI ikastegia bizialdi osoko ikaskuntzan, euskaraz eta online erreferentzia-zentro bihurtzeko lanean aritu gara, laster emaitzak ikusiko ditugulakoan.

Ilidoaren gizarteratzeari begira, bestetik, webguneko elkarrizketen atala ekarpen estrategikoekin elikatu dugu, eta zazpi artikulua sareratu ditugu: [“Euskal Herriak behar du ikuspegi nazionala duen eta bere jardunean euskarak zentralitatea duen unibertsitatea”](#) (Aitor Bengoetxea, 2023-02-27); [“Niretzat UEU garapen-gune eta inspirazio-iturri izan da, bai eta gogoetarako, lanerako eta gozamenerako esparrua ere”](#) (Arantza Aldezabal, 2023-03-07); [“GOI proiektua oso interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zait, eta ilusioa pizten dit unibertsitateko proiektu horretan parte hartzeak”](#) (Maria Napal, 2023-03-09); [“Gure egunerokoan euskaraz ikertu, lan egin, ikasi eta bizitzeko tresnak behar ditugu; eta Inguma da horietako bat”](#) (Marije Bidaguren, 2023-03-23); [“Herritarrak zientzietan ahalduntzea giltzarria da gizarte heldu, kritiko eta arduratsu bat izateko”](#) (Koldo Garcia, 2023-06-06); [“Euskal Unibertsitatea da beti jarraituko dugun ametsa”](#) (Koldo Garcia, 2023-11-28); eta [“Sinestuta gaude Artizarra tresna garrantzitsua izan daitekeela euskal komunitatearentzat”](#) (Zihara Enbeita, 2023-12-15).

Gainera, Euskal Unibertsitateari buruzko 2022ko JAKIN ale berezi monografikoan argitaratutako artikuluei buruz gogoeta publikoa sustatu dugu. Bertatik edukia sareratu ditugu eta "[Euskal Unibertsitatea: auziak eta erronkak](#)" (Donostia, 2023-10-26) mahai-ingurua antolatu dugu eztabaida-foro gisa, gaiaren dibulgazio eta gizarteratzeari begira. Bertan, ale berezian plazaraturiko 10 auzi eta erronketako 3 egilek parte hartu dute: Anjeles Iztueta, Roldan Jimeno eta Xabier Landabideak, eta moderazio-lanetan JAKIN aldizkariko zuzendaria den Lorea Agirre aritu da.

JARDUERA AKADEMIKOA. Unibertsitate-mailako eta etengabeko prestakuntza

ILDO ESTRATEGIKOA: Unibertsitate-mailako ezagutzaren sorkuntza eta zabalkundea euskaraz ahalbidetu. Goi-mailako formazioa eskaini, Komunitate Zientifiko Intelektuala trinkotu eta etengabeko formazioa eskaini

ARLOA: JARDUERA AKADEMIKOA. Unibertsitate-mailako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza. 2022-2023 IKASTURTEA

HELBURU OROKORRAK:

Lehen helburuari dagokionez, GOI ikastegiaren antolaketan, batzorde berriak aktibatzearena genuen: Ikasketen Antolamendurako Batzordea, Praktiken Batzordea eta Kalitate Batzordea. Honi loturik, oraindik ez dira batzorde berriak arautegiak eskatzen duen bezala eratu. Egunerokoan, Batzorde Akademikoak hartzen ditu erabaki nagusiak eta batzorde horiei dagozkien funtzioak eta eginkizunak bermatzen dira, batzordeak formalki eratu bitartean.

Bigarrenik, Moodle ibilbidea edo "[ikastarONline: Moodle-ren bidez online ikastaroak sortzeko ibilbidea](#)" zikloari dagokionez, ziklo osoa behin ematea lortu da. Moduluka egindako izen-ematearen bidez, guztira 32 pertsona izan ditugu matrikulatuta eta gehienek modulu bat edo bi egin dituzten arren, ziklo osoa osatu duen 8ko talde bat izan dugu. Balorazio ona egiten da, zikloa diseinatu, landu eta emateko gai izan garelako. Partaideen balorazioa ere oso ona izan da (4,6 puntu 1-5 eskalan). Hurrengo ikasturtean, ziklo osoa berriz eskaintzeko moduan gaude.

Eta azkenik, jarduera akademikoaren eragin-esparruan, berdintasun-planean zehaztutako helburu eta ekintzak betetzeko asmoz urtean zehar eskainitako jardueren azterketa egin dugu genero-ikuspegitik. Ezagutzaren arloan euskal feminismoaren erreferente izateko bidean sakondu eta hezkidetzaren gure jardueretan sistematikoki txertatzeko, taldean hausnartu eta irizpideak zehazten aritu gara.

AZPIARLOA: AHOLKULARITZA PEDAGOGIKOA

URTEKO HELBURUAK:

Iazko ikasturtean diseinatutako **“UEUren online irakaskuntzarako irakasleen formazio eta aholkularitza pedagogikoaren plana”** martxan jarri dugu 2022/23 ikasturtean. UEUko irakasle guztiei aplikatu zaie, eta irakasleen konpetentzia digitala eta online irakaskuntzan aritzeko trebakuntza handitzea izan da planaren helburua. Horrekin batera, Aholkularitza Pedagogikoa eta akonpainamendua bideratzeko euskarriak sortu ditugu Ikasgela Birtualean, Irakasle Gelak hain zuzen ere. Guztira, **55 irakaslek** parte hartu dute formazio- eta aholkularitza-saioretan. Programa desberdinetako irakasleen premiak eta programa bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, 4 taldetan taldekatu ditugu eta Irakasle Gela bat sortu dugu talde bakoitzarentzat formazio-baliabideekin hornitua. Guztira **13 saio presentzial eta 130 online saio** eman ditugu. Planarekin irakasleei begirako formazioa eta aholkularitza pedagogikoa indartzea eta berrantolatzea lortu dugu, hortaz, prozesua positiboki baloratzen dugu.

Bestalde, 2022/23 ikasturteko onlineko eskaintza akademikoari aurre egiteko **baliabide teknopedagogikoak egokitu eta sortu** dira. Baliabide horien bidez, Ikasgela Birtualaren erabilera eta nabigazioa erraztea bilatzen da, irakasleei beren lana aurrera eramateko tresnak ematea, UEUren irudi-estiloa mantentzea eta UEUko lantalde pedagogikoaren zereginak optimizatzea, ikastaroen prestaketa-lanak arinduz eta arazo teknikoak murriztuz edo saihestuz ikastaroa martxan dagoenean.

Ikasgela Birtualaren kudeaketan, berriz, bertsio-aldaketarekin (3.11 bertsiotik 4.1 bertsiora) ikasgelaren funtzionamendu ona ahalbidetuko duten mantentze-lanak egin dira, erabileratik eratorritako arazo teknikoak bideratu dira eta erabiltzaile zein datuen kudeaketa gauzatu da. Horrez gain, ikastaroen kodeketa-sistema egokia bermatu da eta UEUren irudi-estiloa zaindu da.

UEUren online ikaskuntzarako eredu pedagogikoaren etengabeko hobekuntzaren zaintza egiteko, bi alderdiri erreparatu diegu. Batetik, iazko ikasturtean ikastaro-lagin batean aplikatu zen **ikastaroen egitura didaktiko berria** UEUren onlineko eskaintza osoan aplikatu da, balorazioa positiboa izan delako; eta bestetik, **portfolio digitala** ikastarONline ibilbidean martxan jarri da Mahara aplikazioaren bidez.

Bukatzeko, **aurrez aurreko ikaskuntzarako** UEUren eredu pedagogikoa lantzeko bide-orria abiatu da. Horretarako, prozesu hau bideratuko duen lantaldea sortu da eta aurrez aurreko eredu pedagogikoaren oinarri izan daitezkeen balizko irizpideak identifikatu dira. Irizpide horien arabera behaketa-taula sortu eta, horrekin, 2023ko udako jardunaldietan azterketa-lana egin da. Bukatzeko, behaketaren emaitzak aztertu dira eta ateratako ondorioekin aurrez aurrekoak antolatzeke irizpide eta aholkuak findu dira.

AZPIARLOA: GRADUONDOKO IKASKETAK. MASTER OFIZIALAK ETA BEREZKO TITULUAK

URTEKO HELBURUAK:

Master ofizialei dagokionez, GOI ikastegiak Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterraren **hirugarren edizioa aurrera eraman eta horren balorazio positiboa** egiten du. Zenbakietara ekarrita, **132 plaza berri** eskaini dira, lehen edizioan baino % 10 gehiago, masterrak daukan demanda handiari erantzun nahian. Guztira **175 ikasle** izan dira 22/23 ikasturtean, 132 matrikula berriak eta 43 aurreko ikasturteetatik etorriak. Matrikula-motari dagokionez, 104 matrikula osoak izan dira (% 59,4) eta gainerako 71 partzialak (% 40,6). Emaitzei dagokionez, **ikasleen % 89,7k** matrikulatutako irakasgai guztiak gainditu ditu, eta **132** izan dira masterra amaitu eta titulua lortu dutenak. **Irakasle gisa 30** laguneko taldea aritu da, **26 kolaboratzaile** eta **4 irakasle propio**.

Bestetik, 2023ko uztailean, "[Berrikuntza hezkuntza-marko berrian: ikasteko egoerak gorpuzten, Euskal Curriculum ardatz](#)" jardunaldia antolatu du GOIk, hezkuntza-marko berria ardatz hartuta. Arrakasta handia izan du eta masterreko irakasleez aparte, bigarren hezkuntzako irakasle ugari ere bertaratu dira. Gainera, ikasleen eta irakasleen konpetentzia digitalak lantzeko helburuarekin, aurreko urteetan bezala, **Teknopedagogia mintegiak 2** saio eskaini ditu masterraren barruan. Saioen osagarri gisa, **Teknopedagogia txoko** birtuala sortu da, ikasleen zalantzak argitu eta eduki osagarria eskaintzeko.

Berrikuntza Ikasgelan, ibilbide praktikoa honen hirugarren urtea izan da eta eredu finkatu eta berrikuntza aplikatua bertatik bertara ikertzeko aurrerapausoa eman da: ikasleak Berrikuntza Ikasgelan ikasgaia, Practicum eta Master Amaierako Lana irakasle beraren zuzendaritzapean burutu ditu eta ikastetxeko berrikuntza-egitasmoan oinarrituta. Ikasleen zein irakasleen aldetik emandako urratsaren balorazio positiboa egin da.

Berezko tituluen alorrean, UPV/EHUrekin elkarlanean sustaturiko berezko tituluen eskaintza kudeatu da, [Kudeaketa Linguistiko eta Kulturala Pazientean Zentraturiko Osasun Arretan](#) espezialista-titulua.

Bestetik, UPV/EHUko Doktorego Eskolarako eskaintza diseinatu eta kudeatu da lehen aldiz, doktoregaien prestakuntza-etapan euskarazko eskaintza ere bermatuz. Balorazioa oso positiboa da. Nabarmentzeko zenbait puntu hauek lirateke: ikertzaileen euskarazko prestakuntzaren beharrari erantzuna ematea; eta eskaintza hau GOI ikastegiaren jarduera zabaltzeko aukera oso ona izatea, eskolan 4.000 ikertzailetik gora baitaude matrikulaturik.

Ikastegi atxiki gisa, GOI ikastegiak proposaturiko [Humanitate Digitalak: aukera berriak ikertzen](#) aditu-tituluak ez du aurrera egin, izen-emate txikia izan duelako. Aldiz, 24/25 ikasturterako **eskaintza bi titulu gehiagorekin osatzeko bideragarritasun-azterketa** eta proposamen akademikoaren lanketa egin da.

AZPIARLOA: IKERKETA

URTEKO HELBURUAK:

Lehen helburuari dagokionez, UEUren **Ikerketa Batzordea martxan** jarri da irailean. Gabonak bitarte bi bilera izan ditu eta batzordearen funtzioak eta lehentasunak adostu dira. Batzordearen helburua da egiten den ikerkuntzak UEUren estatutu eta balioekin bat egiten duela bermatzea, lan-esparru hauetan: diziplina anitzeko zientzialari euskaldunen saretzetik abiatuta, sinergiak bilatu eta ikerketa elkarrekin egiteko bide estrategikoa definitzea; ikerketa eta berrikuntza arduratsua bermatuko duen ikerketa-eredu propioa eraikitzea; Garapen Iraunkorreko Helburuak sustatuko dituen lehentasunezko ikerketa-gaiak proposatzea, eta ikerketarako baliabideak bilatzea.

Bigarrenari dagokionez, GOI ikastegiaren **ikerketa-plana abiatu dugu** eta deialdietara aurkeztu gara. Aurtengoa lehenbiziko urtea izan da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente gisa eta GOI ikastegiak balorazio orokor positiboa egiten du. Ikerketa-emitzei dagokionez, 2 argitalpen akademiko atera dira, 3 komunikazio aurkeztu dira kongresuetan, eta Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea bultzatzeko Programaren 2023ko deialdian parte hartu da I+G proiektu batekin, *Euskarazko zientziaren ezagutza-grafoa eraikiz* izenekoa, nahiz eta ebazpen positiborik lortu ez.

Bestetik, ikerketaren sustapenari eta dibulgazioari dagokionez, V. IkerGazte. Nazioarteko Ikerketa Euskaraz kongresua nabarmendu behar da: 151 komunikazio, 52 ahozko aurkezpen, 70 mikroaurkezpen eta 99 poster guztira. Euskal komunitate zientifiko-teknikoaren saretzea eta ikusgarritasuna bultzatzeko asmoz eta ikerkuntzan egindako lana gizarteratzeko helburuarekin, honako hiru deialdi hauetan parte hartu dugu: FECYT 2023. Dibulgazioa

ikasgelan; IkerGazte nazioarteko kongresua antolatzeko Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen “Kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko diru-laguntzak”; Joxe Auzmendi hezkuntza-beka. Hezkuntza Sailaren deialdian jaso da ebazpen positibo bakarra.

Bestetik, [Juan San Martin bekaren](#) deialdi berri bat zabaldu dugu **Eibarko Udalarekin lankidetzan**, Juan San Martinek bere bizitzan zehar landu zituen gaie-tako bati buruzko lanak saritzeko asmoz. Aurtengorako aukeraturiko gaia **mendizaletasuna eta natura izan da**. Tamalez, jasotako lanak ikusita, beka ez es-leitzea erabaki du epaimahaiak. Natur Zientziak Saileko sailburuak izan dira UEUren ordezkariak bertan.

Eta azkenik, helburuekin bukatzeko, **Badalab-ekin lankidetzan**, IkerGazte Kongresuari loturik **ikertzaile gazteentzat diziplina arteko ikerketa-proiektuak garatzeko lehen deialdia** egin eta kudeatu da. Ikertzaile gazte euskaldunak elkarlanean jartzea eta euskarazko produkzioa sustatzea ditu helburu deialdiak eta irabazlea *Euskal Herriko poniaren jatorri eta ondarea* aztertzea helburu duen lana izan da eta hiru arlo ezberdinetako ikertzaileek elkarlanean eramango dute aurrera.

AZPIARLOA: JARDUNALDIAK

URTEKO HELBURUAK:

Esparruan jarritako **helburuak bere osotasunean lortu dira**, hainbat eta askotarikoak izan baitira antolatu edota sustaturiko jardunaldi eta topaketak, euskal komunitate zientifikoa eta profesionala bildu eta trinkotzeko asmoz. UEUko sailek proposatutakoei bidea eman diegu, helburu estrategikoetatik eratorritakoetan indar berezia egin da eta elkarlanetik sortutakoei aurre egin diegu. Udako Ikastaroen formatu bereziak pisu handia eman die jardunaldiei ikasturte honetan. Esan beharrik ez dago **IkerGazte urtea** izan dela, bere horretan jardunaldien atalean daukan pisu espezifikoa ukazina da, bai partaideen aldetik eta, batez ere, antolaketa- eta lankidetzaren sarearen bolumenari dagokionez.

Guztira 20 jardunaldi antolatu ditugu, horietatik 4 ikasturtean zehar eta 16 udakoen barne:

- [IkerGazte: Nazioarteko ikerkuntza euskaraz \(2023\)](#). Donostia, 2023-05-17/19.
- [XXI. menderako hizkuntza politikaz jardunaldia](#). Eibar, 2022-10-19.
- [HDEH2022: Teknologia eta gizartea. Panglosa problematizatzen hackathoia](#). Errenteria, 2022-11-22.

- [Psikomotrizitatea eskola barruan jardunaldia: esperientzietatik etorkizunera](#). Iruñea, 2023-06-03.
- [51. Udako Ikastaroak](#): 16 jardunaldi eman ziren (17 eskaini baina 1 bertan behera).

Partaideei dagokienez (Udako Ikastaroetakoak kontatu gabe), guztira **355 partaide** izan ditugu jardunaldietan (antolatzaileak, hizlariak, gonbidatuak eta matrikulatuak barne). Jardunaldiak dira lankidetzan eta elkarlanak bideratzeko proiektu aproposak eta aurtengo antolatzaileei dagokienez, Errenteriako Udalarekin lankidetzan garatzen den HD-Gunea proiektuaren barne "HDEH2022" jardunaldia antolatu da. Beste jardunaldietako bat ("Psikomotrizitatea eskola barruan"), Nafarroako Gobernuarekin hitzartutako eskaintzaren barne kokatu da. Era berean, Telesforo Monzon laborategiko Txillardeggi Gogoetaginearekin lankidetzan, "XXI. menderako hizkuntza politikaz" jardunaldia antolatu da. Aitzitik, ia zenbatezinak dira IkerGaztek dituen lankide, babesle, antolatzaile, bidaideak oro har, UEUren ospe ona eta lankidetzarako borondatea direla medio bideratzen direnak.

Udako Ikastaroen barruan, **17 jardunaldi** eskaini dira. Jardunaldietako batek ez zuen jaso esperotako partaide kopurua eta bertan behera utzi behar izan zen. Udakoen barne emandako jardunaldietan **643 partaide** bildu dira eta hainbat eragile izan ditugu bidaide, hala nola Osagaiz, Kontseilua eta Galtzaundi elkar-
tea, Errenteriako Udala eta Badalab, Jakin eta Usurbilgo Udala, Iratzar fundazioa, Sumendi espazioa, ALDEE, GEZKI, Emaus eta SOS Arrazakeria, Agora el-
kartea, GOI ikastegia, UPV/EHUko Artearen Historia eta Musika Saila, Farapi eta Lanki, Seaska eta Bernat Etxepare lizeoa. Eta UEUren egituratik: Talde Era-
gilea, Osasun Saila, Informatika Saila eta Filosofia Saila.

Aipatzekoa da ikasturte honetan online ez dela jardunaldirik eskaini eta partaideen asetasun-mailak oso balorazio ona jaso duela, 4,4 puntu (1-5 eskalan). Orokorrean, jardunaldien antolaketak ohiko beste jardueren baino lan-karga eta aurrekontu handiagoa behar izaten badu ere, emaitzak onak izaten dira, eta **UEUren erreferentzialtasuna** lantzeko eta gai edo jakintza-arlo baten inguruan sarea sortu edo/eta dinamizatzeko, jarduera bikainak dira.

AZPIARLOA: ESKAINTZA PROPIOA. URTEAN ZEHARREKO IKASTAROAK ZEIN UDAKOAK

URTEKO HELBURUAK:

Orokorrean, 22/23 ikasturtearen balorazio ona egiten da, **eskaintzari eustea** lortu da eta **partaideen kopuruak mantendu eta emaitza onak** lortu dira.

Ikasturtean zehar, Markeskoako, Iruñeko eta Udako Ikastaroetan barne, **43 jarduera** antolatu dira. Eskainitakoaren % **83k aurrera** egin du, azken urteotako datuak eta joera mantendu ditugu. Emandako ikastaroen % **33 online** izan dira. Guztira **740 partaide** izan dira eta ikasle/ikastaro ratio altua jaso da (**11 ikasle ikastaroko**). Eskaintza hau aurrera eramateko, **266 irakasle eta hizlari** izan ditugu (horietako % 88 udakoetan metatu dira). Partaideen assetasun-maila oso altua da, **4,5 puntu** (1-5 eskalan). Eskaintzaren gehiengoa (udakoetako jardunaldiak izan ezik) **irakasleentzat homologatua** da eta onlineko ikastaroen homologazio bikoitza lortzen da (Eusko Jaurilaritza eta Nafarroako Gobernuarena).

Udako Ikastaroen eskaintza malguagoak denboran eta espazioetan zabaltzea ahalbidetu du; horrela, 18 jarduera eman ditugu (16 jardunaldi, tailer bat eta saio osagarri bat), 8 herri EH osoan zehar (Bilbo, Eibar, Tolosa, Errenteria, Usurbil, Iruñea, Gasteiz eta Baiona) eta 9 areto ezberdinetan, hilabete osoa hartu duen eskaintza batean zehar (ekainaren 12tik uztailaren 12ra bitartean). Guztira **680 partaide** bildu ziren (antolatzaile, hizlari, gonbidatu eta matrikulatuak barne kontatuta), batez beste **40 partaide** jarduera bakoitzean, talde handiak gure ohiko jardurekin konparatuta.

Aitzitik, Ipar Euskal Herrian ez dugu lortu eskaintza emendatzea (udakoekin bakarrik egon gara bertan), baina **plangintza irekiago baten hasiera** egin da, urtean zeharreko eskaintza bideratzeko tokiko lankidetzak berriak sustatuz. Gainera, Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean, **Akademiatik Tartarika** hitzaldi-zikloari jarraipena eman diogu eta **2 hitzaldi eskaini ditugu bertan**.

AZPIARLOA: HITZARTUTAKOAK

URTEKO HELBURUAK:

Markatutako **helburuak lortu dira**. Ikasturtean **57 ikastaro** eman dira (eskainitakoaren % **93k aurrera** egin du) eta horietatik % **79 online** eman dira (45 ikastaro). Orokorrean, hitzartutako eskaintzan, emandako ikastaroen % **68 lehiaketa** bidez lortu direla azpimarratzekoa da. Guztira **1.424 matrikulatu eta 81 irakasle** izan ditugu. Partaideen assetasun-maila altua ere azpimarratzekoa da: 4,6 puntu.

[Prest_Gara](#) eta Haurreskolak Partzuergoaren ([Haurreskolak Partzuergoaren](#) hezitzaileen formazio-programa.) eskaintzaren kasuan, lehiaketa bidez lortzen dira ikastaroak eta, orokorrean, matrikula kopuru altuak jasotzen dira (bertan behera % 7ra ez da iristen eta batez beste 30 ikasleko taldeak osatzen dira). Era berean, Nafarroako Gobernuarekin adostutako eskaintza egonkortuta dagoela esan daiteke ([2023ko eskaintza.](#)), azken urteotako batezbestekoa mantendu baitugu (iaz 12 Nafarroako Gobernuan, aurten 14).

Aurten, berrikuntza gisa, aipatzekoa da [EHUren Doktorego Eskolarekin](#) **5 ikastaro** eman direla, doktoregoko ikasleei zuzendutakoak eta guztiz online: **120 matrikulatu** (105 itxaron-zerrendan) eta 7 irakasle izan ditugu programa berri honetan, guztiak ere GOI ikastegitik bideratu direnak.

Eibarko Udalarekin lankidetzan, **Hiri hezitzailearen** gidaritza hartu du UEUK bere gain. Egoeraren diagnostikoak hartu du urteko pisurik handiena eta udazkenean herriko zenbait eragilerekin egindako mintegian, aurrera begirako urratsak zehaztu dira.

[Ulibarri Programan](#) UEUK parte hartzen duen azken ikasturtea izan da hau. Eusko Jaurlaritzaren Euskara Zerbitzuarekin dugun hitzarmenaren barnean goimailako formazioa eskaini diegu Ulibarri Programako HNAei (Hizkuntza Normalizazio Aholkulariak) zein Euskara Zerbitzuko beste programetako irakasle eta aholkulariei (IRALE, Berritzeguneak). Formazioak harrera ona izan du (34 parte-hartzaile) eta balorazioa oso ona da. Programaren datuen azterketari dagokionez, berriz, urteko hitzarmenean adostutako datu-analisiak eta txostenak gauzatu dira.

Aurtengo ikasturtearekin, UEUren eta Euskara Zerbitzuaren arteko lankidetzak bukatzen dugu Ulibarri Programan, eta aurtengo eskaintza diseinatzea zaila izan den arren, urteetako lankidetzari amaiera duina ematea lortu dugula esan dezakegu.

MATERIALGINTZA.

ILDO ESTRATEGIKOA: Unibertsitate-mailako ezagutzaren sorkuntza eta zabalkundea euskaraz ahalbidetu

ARLOA: MATERIALGINTZA

HELBURU OROKORRAK:

Unibertsitate-mailako argitalpenak sustatu eta editatzeari dagokionez, helburuak bete dira, esandako liburu kopurura iritsi baikara eta ohiko kalitatearekin. **Argitalpenen kalitatearen bermea** indartzen jarraitzeari begira, bestalde, ebaluazio-prozesuan lortu da ebaluazio serioa eta fidagarria egitea argitaraturiko liburu guztien kasuan, eta prozesua guztiz egonkortu ez bada ere, aurrerapausoak eman dira ohiko ebaluazio-moldeetara hurreratze bidean. Urte-hasieran urteko aurreikuspena egiteko gaitasun handiagoa izan dugu (material aldetik), eta, ondorioz, izenburu batzuk lankidetzan aurkeztu ahal izan ditugu aurreikuspen gehiagorekin. Emaitei begiratuta, **oso urte ona izan da.**

Materialgintzaren eragin-esparruan, **berdintasun-planaren helburu eta ekintzak bete ditugu.** Ezagutzaren arloan euskal feminismoaren erreferente izateko bidean sakontzeari eta ikuspegi feminista jakintza-alor guztietan txertatzen joateari dagokienez, genero-ikuspegia sartu dugu gurekin argitaratu nahi dutenei zuzendutako hizkuntza-oharretan. Argitalpengintza Batzordean emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatzeko bidean azterketa egin da eta aurrera begira parte-hartze orekatua lortzea izango dugu helburu.

AZPIARLOA: LIBURUGINTZA

URTEKO HELBURUAK:

Kalitatezko unibertsitate-mailako produkzioa bultzatzeari dagokionez, liburugintzako deialdia bideratu eta kudeatu da. Azkenean, **12 liburu argitaratzea** lortu dugu (IkerGazteko 5 tomoak eta *Borroka armatua* 3 tomoak, liburu bakar bezala kontatu ditugu). Argitaratu ditugun liburuak **jakintza-arlo desberdinetakoak** izan dira eta **16 egilerenak** (liburu batzuen kasuan editoreak bakarrik kontabilizatu dira, egile askoren artean egindakoak izan baitira).

Horietatik, **3 liburu argitaratu ditugu UPV/EHUrekin** koedizioan; beste **5 liburu Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntzari esker; **liburu batentzat Deustuko Unibertsitatearen** laguntza lortu da; eta azkenik, beste batek **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** laguntza izan du.

Unibertsitate-liburuaren sorkuntza sustatzeko poltsen deialdia egin eta kudeatu da (**10 hautagai, hiru poltsetarako**).

Egileei dagokienez, haien lanari **ikusgarritasuna eta erreferentzialtasuna** emateko lan egin dugu. **Esparruko azoka eta biltzarrez** gain, gure produkzioa ezagutarazteko Iparraldeko Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean 2021ean abiatutako lerroari, Tartarika **liburu-aurkezpen zikloari**, jarraipena eman diogu eta **2 liburu aurkeztu ditugu bertan**. UEUren ikusgarritasunarentzat leiho berria **Ziburuko Azoka** izan da, urtero bezala **Sarako Idazleen Biltzarrean** egon gara baita **Durangoko Azokan** ere, eta **2 liburu-aurkezpen** egin ditugu bertan. Aipamen berezia merezi du argitaratu dugun **UEUK 50 urte: bizipenak eta ametsak (#50UEUrte)** liburuak, non #50UEUrtean zehar jasotakoak eta aurrera begira ditugun ametsak aipatzen diren.

Horretaz gain, urteko argitalpenen egileei elkarrizketak egin zaizkie eta guztiak UEUren webguneko elkarrizketen atalean eta dendako liburuaren azalpenean daude ikusgai. Ekinbide hau ere emankorra da eta egileen lanaren ikusgarritasuna areagotzen laguntzen du.

Onlineko argitalpenak bideratzeko eredu desberdinak aztertzeke bidetik, aurreko lehenengoz txertatu dira **QR kodeak 3 liburutan**.

AZPIARLOA: ALDIZKARIAK

URTEKO HELBURUAK:

Komunikazio zientifikoa eta goi-mailako dibulgazioa aldizkarien bitartez sustatzeari dagokionez, hona hemen aldizkari bakoitzean lorturiko helburuen betetze-maila.

UZTARO, Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkaria, arazo barik osatu dira urteko lau zenbakiak. Guztira **18 artikulua, 46 egile, 10 jakintza-arlo eta 512 orrialde**. Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuta eta EUSKALITek gidatuta, **Kudeaketa Aurreratua ereduari buruzko**

formazioa jasotzen jarraitu dugu eta, azkenik, **Open Journal Systems (OJS)**, aldizkariak kudeatzeko software libre (librea) sistemara migrazioa egin da eta produkzio-fasean sartu gara.

OSAGAIZ aldizkari digitalari dagokionez, esan dezakegu aldizkaria sendotzen eta egonkortzen doala, aurten **ohiko zenbaki bat eta ale berezi bi** argitaratu baitira.

INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK

ILDO ESTRATEGIKOA: Euskal komunitate unibertsitarioaren bilgunea egituratu. Jardun eta espazio berriak sortu, garatu eta sustatu

ARLOA: IKT PROIEKTUAK

HELBURU OROKORRAK:

Aurten helburu orokor nagusiak bere osotasunean gauzatu ditugu. UEUren **baliabide teknologikoen etengabeko zaintza** egin dugu eta eguneraketak gauzatu ditugu; **webguneak edukiz osatu** ditugu (berriak editatu, datu-baseak hornitu, informazioa eguneratu, akatsak zuzendu eta baliabideak doitu ditugu) edukien sorkuntza asko zainduz eta sustatuz, eta, ondorioz, gure proiektuen eta euskal komunitate zientifikoaren ikusgarritasuna areagotzen jarraitu dugu; **ingurune teknologikoen aldaketa eta tendentziak** jarraitu eta aztertu ditugu.

AZPIARLOA: DATU-BASEAK

URTEKO HELBURUAK:

Ekoizpenaren **katalogazio eguneratu eta kalitatezkoa** mantentzeko dagokionez, Ingumaren oinarrian etengabeko katalogazio eta eguneratzea dago, horrekin datuen ziurtasuna bermatzen baitugu. Gaur egun, datu-basean, 47.000 dokumentu eta 13.500 egiletik gora ditugu erregistratuta; idatzizko erreferentziek sarean eskuragarri dagoen materialari esteka egiten diote, batez beste, % 60 baino gehiagoan, eta artikulua eta doktorego-tesien kasuetan, zuzenean dokumentura esteka dute % 80an. Gaur egun produkzio zientifikoaren arloan garrantzi handia duen informazio bati, *egileen filiazioari*, 2023an berebiziko garran-

tzia eman diogu eta katalogatutako egileen % 90ek izan du filiazio-erakunde bat esleituta. Datuen ziurtasuna eta fidagarritasuna bermatzeko datu-basearen zuzenketak ere ezinbestekoak dira, eta orotara 4.000 erregistrotik gora zuzendu dira.

Ingumaren iraultza txiki bat eragin duen egitasmoa garatu dugu: Ingumak gordetzen duen informazioarekin ikerketarako erabilgarria izango den azpiegitura berri bat. Ingumak gordetzen duen informazioa **Datu Lotu Irekiak (edo LOD Linked Open Data)** paradigmara pasatu dugu. Web semantikoaren teknologiak baliatuz euskal ekoizpenaren azterketa berriak ahalbidetuko dituena. Aldi berean, euskal ekoizpena Wikipediaren datu-basea den Wikidatarekin lotzeko dugu. Inguma datu-basearen plataforma berria hau, **Inguma-Wikibase**, eskuragarri dago sarean.

Inguma-Wikibase eta Inguma "klasikoa" sinkronizatua mantentzeko **APIa garatu dugu**. API siglak (Application Programming Interface adierazpenaren sigla) aplikazioen programazio-interfazea esan nahi du, hitz gutxitan, bi software-aplikazioen arteko komunikazioa ahalbidetzen duen arau-multzoa. Inguma-Wikibase Wikidataren datuekin aberastuko da; Inguma klasikoa hornitzen jarraituko dugu eta APIak datu horiek guztiak bi datu-baseetan sinkronizatua eta eguneratuta mantenduko ditu.

Bestetik, erakundeei ematen diegun zerbitzua hobetzea izan da helburua. Erakundeek egiten duten **euskarazko ekoizpenaren adierazle ziurra eta egiaztagarria lortzeko garapenak egin ditugu** filiazioaren datuaren bitartez. **Ziurtagiri berria** sortu dugu urteko ekoizpenaren berri ematen duena eta erakundeen arteko konparaketa ere bideratzen duena. Euskarazko ekoizpen zientifiko-akademikoaren argazki fidagarria emango duten adierazleak plazaratzeko gai gara. Horrez gain, Euskararen Adierazle Sistemari Ingumako datuak gehitzeko lanetan ari gara.

Tesien digitalizazioari dagokionez, metadatuaren lanekin aurrera egin dugu eta 50 tesiren metadatuak bildu dira. Gainera, datu-basearen berregituraketa eta webgunearen berrikuntza-lanei begirako aholkularitzan sakondu dugu Eusko Jaurlaritzarekin.

AZPIARLOA: MATERIALGINTZA. SAREKO PROIEKTUAK

URTEKO HELBURUAK:

Esparru honetarako genituen urteko helburuak lortu dira, liburuak formatu digitalean argitaratzeari dagokionez, edukien eguneratze eta argitalpenen metadatuak publikoki eskuragarriago egon daitezen lanetan.

Formatu digitalei dagokienez, aurtengo liburu guztiak (12) PDF eta ePub formatuetan (horietatik 10) ere jarri dira salgai hasieratik. UEUren webguneko “Liburuak” atala **eguneratu dugu eta eduki berrieekin hornitu**. Bertan 2023ko produkzio osoa jarri da. Liburuen kasuan, lehen atala, eta, aldizkarietan, *Uztaro*-ren kasuan 2023ko zenbaki guztiak dituzte ikusgai harpidedunek; baita *Osagaiz* aldizkariaren artikulu guztiak ere. Gainera deskatalogatutako lanak ere jarri dira bertan: 2019ko produkzioa eta 2022ko *Uztaro*-ren zenbakiak denentzat ikusgai. Komunikazio aldetik ahalegin handia egin da aurten argialetxearen atala sareratzeko.

PROZESU EUSKARRIAK. Kudeaketa orokorra. EGITURA

ILDO ESTRATEGIKOA: Egitura profesionala optimizatu

ARLOA: PERTSONAK, BALIABIDEAK ETA ZEHAR-LERROAK

AZPIARLOA: ERAKUNDEA

URTEKO HELBURUAK:

UEUk bere **I. Berdintasun Plana martxan jarri du 2023-2026 urteetarako**. Planak eragin-eremuak zehaztu ditu bai eta bakoitzeko helburuak eta ekintza-kopurua ere. Erakundearen, lantaldearen zein jardueraren eragiteko helburuak eta ekintzak finkatu dira, eta erakundearen dagokion eremuan, besteak beste, indarkeria matxistaren kontrako eta prebentziorako protokolo bat osatzea izan da urteko helburuetako bat. Plangintzaren jarraipenerako zein irizpideak finkatzeko **Berdintasun Batzordea** eratu da erakundearen.

Horrekin loturik ere, garai berrietara eta berdintasunaren aldeko balioetara egokitzeko erakundearen **estatutuak berritzea** izan dugu helburu. Berdintasun-konpromisoa esplizitatzeaz gain, orokorrean, oso zaharkituak daudela ohartu gara, egungo UEU ez dutela islatzen eta gaia nazio-ikuspegi batetik lantzea da-gokigula. Dena batera egiteko asmoz, horretarako beharrezkoa den ezohiko Biltzar Nagusia aurrerago deitzea erabaki da.

AZPIARLOA: PERTSONAK

URTEKO HELBURUAK

Urtero bezala, bideak jarri ditugu **lantaldearen kohesiorako** eta egoitzen arteko koordinaziorako, besteak beste, hileroko bulego-bilerak zein gunen formal eta ez-formalak uztartzea. **Pertsonen zaintza** erdigunean jarri eta **proiektuarekiko atxikimenduan** zein kohesioan eragiteko lan egin dugu, ez bakarrik lantaldean baizik eta sailburu eta egiturako beste guneeetan ere.

Hala ere, lantaldearen eragin-esparruan, berdintasun-planaren plangintza ez dugu bere osotasunean bete: lan egiteko kultura berdinzalea ez da esplizitatu ez ezagutarazi eta trebakuntza eta garapen profesionalaren gaia ez da planifikatu lantaldean. Aldiz, berdintasunaren alorreko trebakuntzari dagokionez, **Emaginen eskutik, formazioa** jaso du lantaldeak.

AZPIARLOA: BALIABIDE MATERIALAK

URTEKO HELBURUAK:

Egoitzen urteko mantentzeari dagokionez, Eibarko Ikastetxe Nagusian, Eibarko Udalaren eraikina izanik, **elkarlana sustatu** dugu eraikina egoera hobere-nean mantentzeko helburuarekin. **Eraikinaren mantentze-lanak** bideratu ditugu, **espazioen kanpo- zein barne-erabilerarako eskaerak** kudeatu ditugu eta **espazioei baliabide teknologiko berriak** esleitu dizkiegu.

AZPIARLOA: FINANTZAKETA

URTEKO HELBURUAK:

Orokorrean diru sarreren gorakada izan dugu, hein batean matrikulazio eta zerbitzu prestazioei esker, baina gehienbat dirulaguntza berriei esker. Beraz, helburuei dagokionez egitura sendo mantentzeko finantzaketa lortu dugula eta lerro berrientzat dirulaguntzen dibertsifikazioa gauzatu dugula esan dezakegu.

Gastuetan ere hazkuntza izan dugu (ikergazte eta bestelako jardurengatik), nahiz eta hain nabarmena ez izan, aurrekontua modu orekatuan handituz. Bide ezberdinetako diru sarrera gehigarriek UEUren fondo soziala indartzea ahalbidetu dute, baita inbertsio berriekekin egitura sendotzea ere.

AZPIARLOA: KOMUNIKAZIOA

URTEKO HELBURUAK:

Barne-komunikazioari dagokionez, urteurrenean sortutako **bazkideen** aktibaziotik abiatuta, aurtan ere inplikazioa mantentzea izan dugu helburu. Horretarako, egin ditugun hitzaldi, mahai-inguru, solasaldi eta jarduera guztietara etor daitezten gonbidatu ditugu. Iazko mailara iritsi ez bagara ere, lortu dugu gure bazkideetza aurrez aurre zein online biltzea.

Bestetik, **Komunikazio Taldea berrantolatu** dugu. Orain arte komunikazio-arduradunak eta sare-sozialen arduradunak osatutako taldera Unibertsitatea.net atariko arduraduna gehitu da. Talde hau astero biltzen da eta lanen berrantolaketa egin dugu UEUren dimentsio komunikatibo osoaren jarraipena egiteko. Berdintasun-planaren harira, Komunikazio Taldeko kide batek Berdintasun Batzordean parte hartu du eta **komunikazio berdinzailearen txostena** egin dugu.

Kanpo-komunikazioari dagokionez, otsailean Batzar Nagusiak Aitor Bengoetxea Alkorta UEUko **zuzendari berria** hautatu ondoren plangintza komunikatiboa egin genuen ezagutzera emateko: UEUko elkarrizketa, medioetan elkarrizketak lotu, bazkideei albistearen berri eman eta sare sozialetan ere kanpaina.

Euskal komunitate zientifiko-intelektuala, **bereziki gaztea**, ezagutzera eman dugu eta **kultura zientifikoa dibulgatu** dugu. Alde batetik, UEUko Komunikazio Taldetik **40 elkarrizketa** egin dizkiegu ikertzaile gazteei (eta guztira **147 elkarrizketa** egin ditugu), **Barredromoan 3 ikertzaile gaztek** parte hartu zuten, **“Akademiatik plazara”** saio dibulgatzailean **6 ikertzaile gaztek** aurkeztu zuten beren ikerketa, eta **ikerl(h)ari bideo-podcast** martxan jarri dugu lau atalekin: **komunitatea, zaintza, euskara eta etorkizuna**. Bertan, **16 ikertzaile gaztek** parte hartu dute. Horretaz gain, Jose Ramon Etxebarria Bilbao eta Mari Luz Esteban Galarzari buruzko **bi dokumental** ere egin ditugu. Gainera, SolastUEU zikloan, Humanitate Digitalei buruzko **online solasaldia** antolatu dugu. Eduki guztiak gure bazkide, komunitate eta komunikabideei helarazi dizkiegu, posta-zerrenda, sare sozial eta ARTIZARRA plataformaren bidez.

Kanpora begirako proiektioan **komunikazio berdinzailearen** aldeko gogoeta-prozesu bat zabaldu dugu.

Azkenik, aurten **webgune berria** jarri dugu martxan. Itxura aldatzeaz gain, UEUren webgune guztiak bertan bildu, komunikazio-atalari garrantzi gehiago eman eta UEUren marka indartu dugu. 75.354 bisitari izan ditu, iaz baino % 9,5 gehiago (goranzko joera).

AZPIARLOA: AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOA

URTEKO HELBURUAK:

Aldizkarien kudeaketara OJS sistema inplementatzea izan da aurtengo helburu potoloenetako bat. Sistema horren bidez aldizkari bat kudeatzeko prozesu osoa web interfaze baten bidez kudeatzen da eta bertatik kontrolatzen dira argitaratze-prozesu batean ematen diren pauso guztiak: lanen eskuratzea, zuzenketak, maketazioa, galeraden sorkuntza...

Horren bitartez, argitalpen elektronikoa ere bermatzen da. Azkenik aipatu behar da argitalpenen kalitate-adierazleak bermatzeko estandarrak betetzea errazten duela.

Online irakaskuntzarako azpiegitura sendotzeari dagokionez, **Moodle 4 LTS instalatu eta BBB (Big Blue Buttom) berritu da.**

Artxibo digitalaren alorrean, argazki-gordailu digital bat abiatu da eta formazioa adostu da Komunikazio Taldeari begira. Horrekin loturik, **komunikazio-tresnak** ere hobetu dira **streaming**-erako azpiegiturak sendotuz. **OBS softwarean** trebatu da lantaldea eta ikus-entzunezkoetan **inbertsioak** gauzatu dira.

Sareko baliabideen atzigarritasuna hobetu eta osatzearen helburuari dagokionez, gordailu digitalak aztertu dira eta prototipo bat abiatu dugu (**Dspace**), modu lokalean martxan duguna. Probak egiten gailtza eta elikatze automatikoak aztertzen, aurrera begira garapena kanpo-hornitzaile batek egin dezan. Ikasgelak eta bertako baliabideak kudeatzeko sistema berri bat ezartzeari dagokionez, **librebooked** aplikazioa testatzen ari gara ikasgeletan eta bertako materialaren kudeaketan.

Azken helburuari dagokionez, webguneen datu estatistikoen burujabetza lortu nahian, Matomo azpiegitura librea instalatu da. Google Analytics-etik estatistika zaharrak atera eta **Matomo** estatistika-sistema librea inportatu eta gaur egungo estatistikak bertan bildu ditugu.